

BALIO PROPOSAMENA

Batxilergoko 1. mailako ikasleak gara proiektu hau egin dugunak. Gizartearekin konpromezu sozial handi bat dugu.

Proiektuaren ideia ondorengoa da:

Emakumeen segurtasunean laguntzen duen silikonazko kopa moduko bat da, bortxaketa saihestuz. Silikonaz egindako kopa moduko bat da, emakumearen baginan sartzen dena. Gizonezkoen ugaltze-aparatua emakumearen bagina ukituz gero, kopa hau itxi egiten da, eta gizonaren zati intimoa kaltetzen diolarik.

Hori gertatzean, emakumeak askatuta egongo da eta eskumuturrekoa sakatu ahal izango du. Hau poliziarekin harremanetan dago, sakatzean automatikoki deitzen die eta erasotzailea harrapatu ahal izango dute.

Gure produktuak hainbat ezaugarri ditu:

1. Nobedadea: Gure produktua merkatuko berritasuna da, ez dago produktu berdinek.
2. Prestazioak: Silikonazko kopa bat da, tamainu eta kolore desberdinetakoa eta barnean defentsa sistema bat du.
3. Pertsonalizazioa: Gure merkatu segmentuari egokitutako diseinua izango du. Kopa, pertsona bakoitzaren tamainuari egokituta egongo da adinaren arabera. Pultsera aldiz, bezeroak kolore desberdin hauetatik aukeratu dezake: beltza, zuria, urdina, horia, morea eta grisa.
4. Lana erraztea: Eskumuturrekoaren bidez, bezeroak poliziarekin konektatuta egoteko erraztasuna izango du uneoro.
5. Diseinua: Bai kopa, bai pultsera, silikonaz eginak egongo dira. Material horrek ez du ingurumena kaltetuko. Koparen kasuan, tamaina aldatu egingo da, gure bezeroaren erosotasunaren eta egoeraren arabera.
6. Segurtasuna eskaini, beldurra galdu eta arriskua murriztea bortxaketa baten aurrean: Produktu honekin segurtasuna ziurtatuko diegu gure bezero guztiei. Eskumuturrekoak eramango duen pertsonaren ubikazioa eta behar den bakoitzean bibrazio baten bidez abisua bidaltzeko gaitasuna izango ditu.

7. Azkartasuna: Kopak duen zepo-sistemak, berehala erantzuten du, hau da, automatikoki sistema ezartzen da kalanbrea emanez.
8. Eskuragarritasuna: Produktua gure B.A.K web orrialdetik erosi deazakezu, 25-30€-artean tamainaren arabera.
9. Erabilerraztasuna: Erabiltzeko oso erraza da, gure kopa silikonazkoa denez, ez du minik egiten eta eroso da. Bakoitzaren erosotasunarako tamaina ezberdinak izango ditugu, ugaltze aparatuan aplikatzeko.